

18/10 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Juan Carlos Jauregui
M^a Teresa Ojanguren
Mikel Pagola
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko irailaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **2018-19 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako kidegoetako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoko LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

EAEko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak lanpostuen zerrendak arautzen ditu II. tituluaren I. kapituluan, irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketari buruzkoan; zerrenda horien oinarriko printzipioak adierazten ditu, baita zerrendak egiteko jarraitu beharreko prozedurak ere.

Parametro hauek identifikatzen dituzte dekretu honi erantsitako zerrendetan azaltzen diren lanpostuak: espezialitatea, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasuna. Hizkuntza-eskakizunak hizkuntza-ereduen arabera zehazten dira, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan (apirilaren 2ko EHAA) ezarritako proportziak beteta; dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak aldatu zuen (urtarrilaren 20ko EHAA), eta arautu egin zuen nola dekretu hori irakasleen lanpostuei. Helduen ikastetxeetako lanpostuei hizkuntza-eskakizunak jartzeko, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan ezarritako irizpideak jarraitu dira.

I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 10 artikulua, 10 xedapen gehigarri, 2 azkenak eta 10 eranskin ditu.

1.etik 5.era bitarteko artikuluek ikastetxe mota desberdinetako Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasleen lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen dituzte. Bigarren Hezkuntza, HHE, Hizkuntza Eskolak, Musika Kontserbatorioak eta Arte Eskolak I.tik V.era bitarteko eranskinetan daude.

6. artikulua Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetara atxikita dauden erlijio irakasleen LPZ jasotzen du, VI. Eranskinen zerrendatuta dagoena.

7. artikulua VII. Eranskinean azaltzen den Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoaren LPZ onartzen du.

8. artikulua Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko (UHEI) LPZ onartzen du, eta 9. artikulua IX. Eranskinean azaltzen den Kirolene-Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoko LPZ onartzen du. 10. artikulua Dantzerti LPZ onartzen du.

1., 2., 3., 4. eta 5., eta 7. xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte.

5. xedapen gehigarria hizkuntz profilen derrigortasunari buruzkoa da; 7.ak lanpostuak hornitzeko prozedura erregulatzen du; 8.ak ingelesez irakasten diren espezialitateak arautzen ditu eta 9.ak zenbait postutara iristeko behar diren espezialitateak arautzen ditu. Hamargarrenak dio postu guztietan aurkeztu behar dela kondenatuta ez egotearen ziurtagiria, Adin txikikoen Babes Juridikoaren Legearekin bat etorritik.

Azken lehen xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da, eta bigarrenak dio noiz sartuko den indarrean Dekretua.

II. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu honetan jasotako LPZetan 160 plaza gehiago daude, Aurrekontuen Legeak onartu duen plantillaren gehikuntza

Horietatik 8.630 Bigarren Hezkuntzako kidegoetakoak dira (aurreko ikasturtean baino 227 gehiago) eta gainerakoak (879) DBHko lehen zikloan irakasten duten maisu-maistren kidegoetakoak dira, iaz baino 67 gutxiago.

LPZ organiko honetan Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasle Kidegoak (126), ikastetxe horietako lan itunpeko langileak (23), eta LHko irakasle teknikoak (72) izan dute plaza kopuruaren igoera handiena; Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutua 12 plaza gehiago ditu. Bestalde, HEOetako Katedradun eta Irakasle Kidegoak 12 plaza gutxiago ditu. Horrez gain, lehen aldiz sartzen dira Arte dramatikoko eta dantzako Goi Mailako Eskolaren plazak sartzen dira.

Bigarren Hezkuntzako eta dekretuan jasotako beste kidego batzuetako LPZ organikoko plazak, ikastetxe motaren arabera. 2017-18 eta 2018-19 ikasturteak.

| | 2017-18 | 2018-19 | Δ Azken urtea |
|--|--------------|--------------|---------------|
| Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasle Kidegoak (BHI) * | 6.409 | 6.535 | 126 |
| Lanbide Hezkuntzako Irakasle Teknikarien Kidegoa (BHI) | 1.133 | 1.205 | 72 |
| Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako Irakasle Kidegoa (BHI) | 16 | 12 | -4 |
| HEOetako Katedradun eta Irakasle Kidegoak | 313 | 301 | -12 |
| Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle Kidegoak | 114 | 116 | 2 |
| Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasle Kidegoak | 11 | 11 | 0 |
| Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Lan Kontratudun Langileak | 222 | 245 | 23 |
| HEOetako Lan Kontratudun Langileak | 5 | 5 | 0 |
| Gradu Ertain. Musika Kontserbatorioetako Lan Kontratadunak | 22 | 21 | -1 |
| Arte Eskoletako Lan Kontratudun Langileak | 9 | 9 | 0 |
| Erljio Katolikoko Lan Kontratudun Langileak (BHI) | 68 | 65 | -3 |
| Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutuko langileak | 74 | 86 | 12 |
| Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Mailako Langileak Dantzerti | 7 | 9 | 2 |
| Kirolene, Kirol Irakaskuntzen Zentroko langileak | | 10 | 10 |
| Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira | 8.403 | 8.630 | 227 |
| Maisu-maistren kidegoa | 946 | 879 | -67 |
| Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako eta beste batzuetako plantilla organikoak guztira | 9.349 | 9.509 | 68 |

(*) Lehen taldeko 6.525 plazetatik 6.360 institutuetaoak dira eta 170 HHEkoak.

Bigarren Hezkuntzako kidegoak jomuga ikastetxeen arabera banatuz gero, ikus liteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantilla organikoan 227 plaza gehiago daudela eta HHE ikastetxeetakoan 15 plaza gehiago.

Bigarren Hezkuntzako kidegoetako LPZ organikoetako plazen banakapena, jomuga zentroaren arabera. 2017-18 eta 2018-19 ikasturteak.

| | 2017-18 | 2018-19 | Azken urtea |
|---|--------------|--------------|-------------|
| Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak era beste batzuk | 7.774 | 7.997 | 223 |
| Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak | 155 | 170 | 15 |
| Hizkuntza Eskola Ofizialak | 318 | 306 | -12 |
| Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak | 136 | 137 | 1 |
| Arte Eskola | 20 | 20 | 0 |
| Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira | 8.403 | 8.630 | 227 |

Plantillen euskalduntzeari dagokionez, ikastetxe guztietako langileen %79k dauka HE2. Aipatzekoak dira DBHko maisu-maistren kidegoa (%94,5) eta HHEko

irakasleena (%94). Bestalde, erlijioiko irakasleen kasuan %94ak du HE2. Hizkuntza Eskola Ofizialetan igoera handiena izan da.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZ organikoetan 2HE duten plazen portzentajea, zentro motaren arabera. 2017-18 eta 2018-19 ikasturteak.

| Ikastetxe mota | | 2018-19 | | | 2017-18 | Δ Azken urtea |
|---|--|---------|---------|-------|---------|---------------|
| | | 2HEekin | Guztira | 2HE | 2HE | |
| Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak | Bigarren Hezkuntzako kidegoak eta beste batzuk | 6.189 | 7.997 | 77,4% | 76,8% | 0,6 |
| | Maisu-maistren kidegoa | 831 | 879 | 94,5% | 94,4% | 0,2 |
| Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak | | 161 | 170 | 94,7% | 94,2% | 0,5 |
| Hizkuntza Eskola Ofizialak | | 252 | 306 | 82,4% | 80,8% | 1,6 |
| Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak | | 100 | 137 | 73% | 72,8% | 0,2 |
| Arte Eskola | | 8 | 20 | 40% | 40% | 0 |
| Guztira | | 6.189 | 9.509 | 79,3% | 78,9% | 0,4 |

Kontuan hartzen badugu Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako (BHI) *funtzionamendu plantilla* osoa, ikusiko dugu, Hezkuntza Sailak emandako informazioaren arabera, Bigarren Hezkuntzan 279 irakasle gehiago dagoela.

Maisu-maistren plantillan, 62 plaza gutxiago dago. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantilletan 217 plaza gehiago egongo dira aurtengo ikasturtean.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako funtzionamendu plantilla 2017-18an eta 2018-19an

| | 2017-18 | 2018-19 | Azken urtea |
|--|--------------|--------------|-------------|
| Bigarren Hezkuntzako kidegoak eta ordainpeko langileak | 8.372 | 8.651 | 279 |
| Maisu-maistren kidegoa | 994 | 932 | -62 |
| Funtzionamendu plantilla guztira | 9.366 | 9.583 | 217 |

Unitate eta ikasle kopurua handitu egin da etapa guztietan, Batxilergoan izan ezik, non 9 unitate eta 421 ikasle gutxiago baitaude.

Irakasle/ikasgela ratioa mantendu egin da eta ikasle/irakasle ratioa eta ikasle/ikasgela ratioa berriz apur bat murriztu da

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako unitateen eta ikasleen bilakaera etapaka. 2017-18 eta 2018-19 ikasturteetako aurre-matrikula.

| | | 2017-18 | 2018-19 | Δ Azken ikasturtea | |
|---|--|---------------|---------------|---------------------------|-------|
| Unitateak edo ikasgelak (aurre-matrikula) | DBH | 1.899 | 1.934 | 35 | 1,8% |
| | Batxilergoa | 570 | 561 | -9 | -1,6% |
| | Lanbide Heziketa (EZ, GZ eta OLH) | 1.097 | 1.114 | 17 | 1,5% |
| | Hezkuntza Berezia eta AAT, ikasgela itxiak | 89 | 95 | 6 | 6,7% |
| | Unitateak guztira | 3.655 | 3.704 | 49 | 1,3% |
| Ikasleak (aurre-matrikula) | DBH | 40.331 | 40.772 | 441 | 1,1% |
| | Batxilergoa | 14.711 | 14.290 | -421 | -2,9% |
| | Lanbide Heziketa (GZ, EZ eta OLH) | 21.301 | 21.843 | 542 | 2,5% |
| | Hezkuntza Berezia eta AAT, ikasgela itxiak | 571 | 597 | 26 | 4,6% |
| | Ikasleak guztira | 76.914 | 77.502 | 588 | 0,8% |
| Irakasleak: funtzionamendu plantillak | | 9.366 | 9.583 | 188 | %2,0 |
| Irakasle / ikasgela ratioa | | 2,6 | 2,6 | 0 | |
| Ikasle / ikasgela ratioa | | 21,0 | 20,9 | -0,3 | |
| Ikasle / irakasle ratioa | | 8,2 | 8,1 | 0,1 | |

BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektuko datuen banakatzean ikus daiteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako (BHI) plantilla organikoa 160 plaza gehiago daudela aurreko ikasturtekoarekin alderatuta. Bestalde, UHEIn 12 plaza gehiago daude, Kirolenen 2 eta gainerakoak mantendu egin dira.

Funtzionamendu errealeko plantillei dagokienez, iaz baino 217 plaza gehiago daude, eta aurre-matrikulako datuen arabera, 566 ikasle eta 48 ikasgela gehiago ere bai. Horrek esan nahi du ikasle/ikasgela ratioa eta ikasle /irakasle ratioa pixka bat murriztu direla, eta irakasle/ikasgela ratioa mantendu egin dela.

Kontseiluak uste du ratioak oro har erreferentziazko araudiak ezarritakoaren azpitik mantendu direla.

17/18ko lanpostuen zerrendei buruzko irizpenean Kontseiluak onartu zuen proposamena, zeinaren bidez eskatu baitzuen baliabideak esleitzean kontuan har daitezela profil sozioekonomiko baxuena duten ikastetxeak, horrela jatorriko defizitak konpentsatzeko eta curriculumeko gaitasunen garapen-maila bera erdiesteko ikasle guztientzat.

Horregatik, Lehen Hezkuntzaren LZren kasuan bezala, Kontseiluak ondo baloratzen du IBH (Hezkuntza Beharren indizea) sortzea eta egoera bereziki sailak dituzten ikastetxei laguntza gehigarria emateko erabiltzen hastea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2018ko irailaren 20a

IDAZKARI TEKNIKOA

Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.:NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA